



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 3. ERRONDAZ

Noiz: 2017ko abuztuaren 28tik 31ra arteko astean

EMAITZA NAGUSIAK

Hirugarren saioak puntu erabakigarrietan garrantziko gauzak argitzeko balio izan zuen, esate baterako mugako langileen estatutua, gizarte segurantzako eskubideen totalizazioa, edo EBren Justizia Auzitegian erabakitzeke dauden gaiak, besteak beste.

Hala ere, ez zen aurrerapauso handirik egon, Irlanda gaiari dagokionez izan ezik. Arlo horretan, eztabaida emankorra izan zen. Zehazki, Erresuma Batuak Bidaia Eremu Komunari buruz eta Ostiral Santuko Akordioen esparruan Ipar eta Hegoaldearen arteko lankidetzari buruz eman behar dituen bermeak eztabaidagai garrantzitsuenak izan ziren.

Herritarren eskubideak direla eta, EBren negoziatzaile buruak egiteko asko dagoela iritzi zion. Kritikatu egin zuen Erresuma Batuan legez bizi diren EBko pertsonen deportazioko gutunak jaso zituztela udan; britainiar gobernuak ordu gutxi geroago akats bat izan zela aitortu arren, Michel Barnierrek esan zuen horrelako egoerak ez direla onargarriak eta horrelakoak gertatzeak indartu egiten duela herritarren eskubideak auzitegi nazionaletan zuzenean egikaritzeko modukoak izatea beharrezko bihurtzea.

Finantzen akordioa dela eta, EBk uste du zergadunek ezin dizkietela ordaindu 27ri 28k hartutako konpromisoak. Uztailean, aurreko errondan, Erresuma Batuak onartu egin zuen obligazio finantzarioak dituela; hala ere, hirugarren erronda honetan, aurrekontuaren azken ordainketara mugatuko zela adierazi zuen. Ildo horretan, EBk adierazi zuen hirugarren herrialdeekiko eginbehar eta bermeak ere badaudela, hala nola, adibidez, Ukrainarekin eta Afrikaren garapenarekin. EBri harrigarria gertatu zitzaion alde egin ostean Erresuma Batua konpromiso horiek betetzera legez behartuta ez sentitzea.

Oro har, EBren negoziatzaile burua, Michel Barnier, ez zen azaldu unera arteko negoziazioetan lortutako emaitzekin gogobetarik. Talde bien lana denek bikaintzat jotzen duten arren, arazoa Erresuma Batuaen estrategian datza.

Hirugarren erronda baino egun batzuk lehenago, mezu bat –ustez Erresuma Batuko Gobernuarena– prentsara itzuri zen, Michel Barnierren posizioa ahuldu nahian: "Ez dauka aginpiderik askatasunez negoziatzeko".

Badirudi Erresuma Batuak uste duela negoziatzaile burua Frantziako eta Alemaniako gobernuen txotxongilo bat baino ez dela. Barnierrek bere buruaren defentsa egin du, negoziazio hau ohikoa ez dela, aurrekaririk ez daukala eta Juncker Presidentearen konfiantza osoa duela argudiatuz. Gogora ekarri du negoziazio taldeak Kontseiluak ezarritako aginduaren esparruan eta inork gutxietsi behar ez duen rola duen Europako Parlamentuaren konfiantzarekin diharduela.